

# BESTELAKO XEDAPENAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 4186

*ERABAKIA, 2024ko ekainaren 26koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurarena, irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarriak esleitzeko ebaluazioa eskatzeko urteko deialdia onartzen duena.*

María Pilar Elorrieta Santosek, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluko idazkari nagusiak, honako hau

### ZIURTATZEN DU:

Bi mila eta hogeita lauko ekainaren 26an bilduta, Gizarte Kontseiluaren berrehun eta hogeita hamaseigarren osoko bilkurak beherago aipatzen den erabakia hartu zuen aztergai zerrendako bederatzigarren puntuaz, zeinak honela baitzioen: irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarriak esleitzeko ebaluazioa eskatzeko urteko deialdia.

Lehenengoa.– UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien urteko deialdia onartzea (erabaki honi erantzen zaio).

Bigarrena.– Erabaki hau eta erantsitako deialdia Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Errekurtsoak.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa betez, jakinarazten da egintza honek administrazio bidea agortzen duela, Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38.4 artikulua jaso bezala. Errekurtsoa jar daiteke bi hilabeteko epean egintzaren auka, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan argitaratzen denetik kontaktatzen hasita.

Bilbao, 2024ko ekainaren 26a.

Kontseiluburua,  
JOSÉ AGUSTÍN EIZAGUIRRE AGOTE.

Idazkari nagusia,  
MARÍA PILAR ELORRIETA SANTOS.

2024ko irailaren 9a, astelehena



## ERANSKINA

URTEKO DEIALDIA, ORDAINSARI OSAGARRI GEHIGARRIAK  
ESLEITZEKO EBALUAZIOA ESKATZEKO**Lehenengoa.**– Deialdiaren helburua.

1.1.– Deialdi honen helburua da irakasle-ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarriak esleitzea, haien merezimenduak ebaluatu eta gero, aintzat harturik deialdi hau argitaratzen den egunean indarrean dagoen Unibasq- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ebaluazio protokoloa.

1.2.– Ordainsari osagarri gehigarriak sailkatuta daude hiru maila metagarritan eta hainbat tarte progresibotan. Hain zuzen:

- C maila: UPV/EHU n eginiko jardun profesionala saritzeko.
- B maila: kalitatea eta etengabeko hobekuntza saritzeko.
- A maila: bikaintasuna saritzeko.

1.3.– Deialdi hau arautuko dute deialdiaren beraren xedapenek eta UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen gehigarrizko ordainsari osagarri buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuak (64/2011 Dekretu bidez aldatua). Horietan jasota ez dagoenerako, kontuan hartuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

**Bigarrena.**– Aplikazio eremu subjektiboa.

2.1.– Merezimenduak ebaluatzea eska dezakete:

- a) UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek, hala funtzionarioek nola administrazio kontratadunek edo lan kontratadunek, baldin eta ez badaude hurrengo puntuaren egoeraren batean.

2.2.– Ezin dute ebaluazioa eskatu:

- a) Aurreko deialdietan ebaluatutako izan direnek, bost urte igaro ez badira ebaluatutako aldiaren amaiera datatik 2023ko abenduaren 31ra arte, C2 eta B1 mailetarako ebaluazioa eskatzen dutenek izan ezik.
- b) Unibasq Agentziarekin kolaboratzen duten irakasle-ikertzaileek, kanpoan uzten baititu UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen gehigarrizko ordainsari osagarri buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuko (64/2011 Dekretu bidez aldatua) hirugarren xedapen gehigarriak.
- c) UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen ordainsariei buruzko martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuak kanpoan uzten dituen irakasle-ikertzaileek.



### **Hirugarrena.**– Eskaerak aurkeztea/formalizatzea.

3.1.– Eskaerak bide telematikoz egingo dira, horretarako ezarritako aplikazio informatikoa erabiliz, bat etorritz UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarri buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren (64/2011 Dekretu bidez aldatua) 7.2 artikuluekin.

Aplikazio horren bidez, eskaeraren laburpen dokumentua lortuko da, eskatzaileak modu elektronikoan sinatu eta UPV/EHUren erregistro elektronikoko bidez bidali beharko dena (prozeduren katalogoan, ordainsari osagarri gehigarriak, <https://egoitza.ehu.eus/es/catalogo-de-servicios>), deialdi honetan ezarritako epean. **Dokumentu hori bidali ezean, eskaera ez da formalizatutzat hartuko.**

3.2.– Eskaerak aurkezteko epea **hilabetekoa** izango da, erabaki hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

3.3.– 49,70 euroko tasa ezartzen da, Unibasqen alde, ebaluazio eskubideei dagokienez, aintzat harturik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoek buruzko Legearen (1/2007 Legegintzako Dekretua) 95 bis eta 95 *quinquies* artikulua (dekretu hori aldatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legeak). Dagokion ordainketa egin izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko da, aplikazio informatikoaren jarraibideei jarraituz. Tasa ordaintzen ez bada, eskaera ez da formalizatutzat hartuko. Ez dute tasarik ordaindu beharko soilik C mailako osagarriak esleitzea eskatzen dutenek.

**Laugarrena.**– Espedienteak bidaltzea Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziara.

Eskaerak Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziara bidaliko dira, nahitaezko balorazio txostena egin dezan, txostena argitaratzeko epea adierazita. Eskaerak agentziara bidaltzeak berekin ekarriko du prozedura ebazteko epea etetea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua araberak.

**Bosgarrena.**– Akatsak zuzentzea.

Epe barruan eginiko eskaerak deialdiko baldintzak betetzen ez baditu, edo behar diren agiriak aurkeztu ez badira, interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko hamar egun balioduneko epean, kontatzen hasita interesdunak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik. Nahitaezko agiriak edo baldintzak justifikatzeko behar diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

**Seigarrena.**– Merezimenduak ebaluatzea.

Behin justifikatuta maila eta tarte bakoitzeko merezimenduak, ebaluatu egingo dira, aintzat harturik deialdi hau argitaratzean indarrean dagoen Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ebaluazio protokolo baldintzak.

Nolanahi ere, eskaerari erantsiko zaio merezimenduen justifikazioa eta gainerako betekizunena, aplikazio informatikoan ezarritako moduan. Eskaera aurkeztu ondoren,



eskatzaileek jasoko dute alegatutako merezimenduen justifikazioa egiaztatzeko errekerimendua, eta adieraziko zaie ezen, hori egin ezean, ez dela ebaluatuko merezimendurik.

**Zazpigarrena.**– Ebazpena.

7.1.– Deialdia bi fasetan ebatziko da: lehenik esleituko dira C mailari dagozkion ordainsari osagarri gehigarriak; ondoren, B eta A mailakoak eta unibertsitate eskolako irakasle titular ez-doktoreen osagarri espezifikoak.

7.2.– Gizarte Kontseiluak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, ordainsari osagarri gehigarriak esleituko dizkie irakasle-ikertzaileei, banan-banan, eta dagozkion erabakiak emango ditu, kontuan izanik Unibasqek bere txostenean (ikus laugarren oinarria) irakasle-ikertzaile bakoitzarentzat ezarri dituen maila eta tartea. Hala badagokio, erabaki horri erantsiko zaio Unibasqek eginiko ebaluazioa. Erabaki horien aurka, interesdunek berraztertzeko administrazio errekurtsua jarri ahal izango dute, hilabeteko epean, zenbatzen hasita interesdunari erabakia jakinarazten zaion egunetik, edo zuzenean aurkaratu ahal izango dituzte, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, kontatzen hasita interesdunak erabakia jasotzen duen egunaren biharamunetik.

**Zortzigarrena.**– Jakinarazpena.

Alde batera utzi gabe aurreko oinarrian adierazitakoa, behin Gizarte Kontseiluak ordainsari osagarri gehigarrien esleipena onartuta, lorturiko tarteak jakinaraziko zaizkie interesdunei, posta korporatibo bidez, bai eta zer estekatan eskura dezaketen ere Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren txostena.

**Bederatzigarrena.**– Ondorio ekonomikoak.

Merezimenduen ebaluazioak eta osagarrien esleipenak ondorio ekonomikoak izango dituzte ebaluazioaren hurrengo urtean, aintzat harturik UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarriei buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren (64/2011 Dekretu bidez aldatua) 10. artikulua.

**Hamargarrena.**– C mailako ordainsari osagarri gehigarrien oinarri espezifikoak.

10.1.– Xedea.

10.1.1.– UPV/EHUn eginiko jardun profesionala saritzen duen C mailak bi tarte ditu:

- C1 tartea eskuratzeko, 3 urteko lotura egiaztatu behar da UPV/EHUREkin.
- C2 tartea eskuratzeko, 7 urteko lotura egiaztatu behar da UPV/EHUREkin.

10.1.2.– Zenbaketa egitean, kontuan hartuko dira 2023ko abenduaren 31ra arteko zerbitzuak, eta UPV/EHUK egiaztatuko ditu ofizios zerbitzu horiek.

10.1.3.– Aipaturiko denbora zenbatzean, zerbitzu aktiboaren parekotzat hartuko dira zerbitzu berezietako egoerak eta seme-alabak zaintzeko eszedentziak, senitartekoak zaintzeko eszedentziak eta genero indarkeriaren biktimen eszedentziaren lehen sei hilabeteak, funtzionarioen kasuan, edota egoera baliokidea, lan kontratuko irakasle-ikertzaileen kasuan.



10.2.- Unibertsitateko jardun profesionala aitortzeko ebaluazioa lehen aldiz eskatzen duten pertsonen aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte jardun profesionala (C1 eta C2) aitortzeko ebaluazioa lehen aldiz egiten duten pertsonen:

- Eskaera inprimakia, aplikazio informatikoan I. eranskin gisa eskura daitekeen ereduaren arabera.
  - Saileko Kontseiluaren txostena, 2.1 ereduaren arabera, honako hauetan oinarritua:
 

Irakaslanari buruzko txosten negatiborik ez izatea; hau da, betebeharrak formalei buruzko ez-betetzerik ez egotea (tutoretzak, eskolak, akten epeak, etab.).
  - Irakaslanari buruzko inkestak sistematikoki bete izana eta balorazio negatibo errepikaturik ez egotea.

10.3.- Ordainsari osagarri gehigarriak eskuratzeko ebaluazioetara aurretik aurkeztu diren pertsonen aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte jardun profesionala (C1 eta C2) aitortzeko ebaluazioa bigarren aldiz egin behar duten pertsonen:

- Eskaera inprimakia, aplikazio informatikoan I. eranskin gisa eskura daitekeen ereduaren arabera.
- Saileko Kontseiluaren txosten positiboa, arrazoitua eta argudiatua, 2.2 ereduaren arabera, honako hauetan oinarritua:
  - Irakaslanari buruzko txosten negatiborik ez izatea.
  - Irakaslanari buruzko inkestak sistematikoki bete izana, ahal izan den guztietan, eta balorazio negatibo errepikaturik ez egotea.
  - Tutoretzak bete izanari buruzko ikuskaritzaren txostenak.
  - Irakaslearen autotxostena.
  - Irakaslearen ikerketa lana eta ezagutza transferitzeko jarduerak.

10.4.- Txostena aurkeztetik salbuestea.

Ez dute aurkeztu beharko aurreko bi ataletan aipatutako txostena:

- Ohiko irakaskuntza jardueratik kanpo dauden edo aldi batez egon diren irakasleek, kargu akademikoak betetzeagatik edo liberatuta egoteagatik (sindikala, euskara ikasteko, sabatikoa, irakaskuntza eta ikerketa eguneratzeko, etab.), irakaskuntzatik erabat edo partzialki salbuesteko eskubidearekin. Kasu horietan, interesdunak justifikatu egin beharko du ohiko irakaskuntzatik kanpo utzi duen egoera.



Irakasleak zerbitzu berezietan edo seme-alabak zaintzeko eszedentzian (edo pareko egoera, kontratatutako irakasle-ikertzaileen kasuan) egon diren aldiak; interesdunak justifikatu egin beharko du ohiko irakaskuntzatik kanpo utzi duen egoera.

#### 10.5.- Ikertzaileen kasuan ebaluaziorako behar den dokumentazioa.

- Eskaera inprimakia, aplikazio informatikoan I. eranskin gisa eskura daitekeen ereduaren arabera.
- Ikertzailearen Saileko Kontseiluaren aldeko txostena, bere betebeharrak betetzeari buruzkoa, 2.3 ereduaren arabera.

**Hamaikagarrena.**– B eta A mailetak ordainsari osagarri gehigarrien oinarri espezifikoak.

#### 11.1.- Xedea.

11.1.1.- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza aitortzeko B mailak hiru tarte ditu:

- B1 lortzeko, gutxienez 5 urteko antzintasuna egiaztatu behar da UPV/EHUn; gainera, C1 tarte eta 25 puntu.
- B2 lortzeko, gutxienez 10 urteko antzintasuna egiaztatu behar da UPV/EHUn; gainera, doktore maila, C1 eta C2 tarteak eta 50 puntu.
- B3 lortzeko, 10 urteko antzintasuna egiaztatu behar da UPV/EHUn; gainera, doktore maila, C1 eta C2 tarteak eta 75 puntu.

11.1.2.- Bikaintasuna aitortzeko A mailak bi tarte ditu:

- A1 lortzeko, 15 urteko antzintasuna egiaztatu behar da; gainera, doktore maila, C1 eta C2 tarteak eta gutxienez 90 puntu.
- A2 lortzeko, 15 urteko antzintasuna egiaztatu behar da; gainera, doktore maila, C1 eta C2 tarteak eta gutxienez 90 puntu.

11.1.3.- Zenbaketa egitean, kontuan hartuko dira 2023ko abenduaren 31ra arteko zerbitzuak, eta UPV/EHUK berak egiaztatuko du ofizios antzintasuna.

11.1.4.- Aipaturiko denbora zenbatzean, zerbitzu aktiboaren parekotzat hartuko dira zerbitzu berezietako egoerak eta seme-alabak zaintzeko eszedentziak, senitartekoak zaintzeko eszedentziak eta genero indarkeriaren biktimen eszedentziaren lehen sei hilabeteak, funtzionarioen kasuan, edota egoera baliokidea, lan kontratuko irakasle-ikertzaileen kasuan.

11.1.5.- Lehen aldiz ebaluazioa egin behar duten pertsonak alegatu ahal izango dituzte beren bizitza akademiko osoko merezimenduak, 2023ko abenduaren 31ra artekoak. Aurretik ebaluaziora aurkeztu direnek aurkeztu ahal izango dituzte ebaluazio horretan lorturiko puntuazioa aitortzeko datatik 2023ko abenduaren 31ra arte lorturiko merezimenduak.

11.1.6.- Eskaerari erantsiko zaio merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa, 1.1 oinarrian aipaturiko protokoloan ezarritako moduan.



**11.2.- Beste ebaluazio bat eskatu nahi dutenek edo lehen aldiz ebaluaziora aurkezten direnek aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

- Eskaera inprimakia, aplikazio informatikoan II. eranskin gisa eskura daitekeen ereduaren arabera.
- B2, B3, A1 eta A2 mailen kasuan bakarrik: egiaztatzea beste unibertsitate edo ikergune batzuetan, edozein lan, estatutu edo administrazio loturarekin eginiko irakaskuntza, ikerketa, ezagutza transferentzia edo kudeaketa zerbitzuak. Soil-soilik aztertu eta, hala badagokio, onartuko da ebaluazioa eskatzen bada B2 tartetik aurrera eta UPV/EHUK ez badu aitortu 15 urtetik gorako antzintasuna.

**Hamabigarrena.-** Unibertsitate eskolako titularrentzako ordainsari osagarri gehigarriak.

**12.1.- Xedea.**

12.1.1.- Doktore ez diren eta gutxienez 10 urteko antzintasuna duten unibertsitate eskolako irakasle titularrek osagarri espezifiko bat lortu ahal izango dute, baldin eta gutxienez 50 puntu lortzen badituzte, edo beste osagarri espezifiko bat, puntuazioa 75etik gorakoa bada.

12.1.2.- Zenbaketa egitean, kontuan hartuko dira 2023ko abenduaren 31ra arteko zerbitzuak, eta UPV/EHUK berak egiaztatuko du ofizios antzintasuna.

12.1.3.- Aipaturiko denbora zenbatzean, zerbitzu aktiboaren parekotzat hartuko dira zerbitzu berezietako egoerak eta seme-alabak zaintzeko eszedentziak, senitartekoak zaintzeko eszedentziak eta genero indarkeriaren biktimen eszedentziaren lehen sei hilabeteak, funtzionarioen kasuan, edota egoera baliokidea, lan kontratuko irakasle-ikertzaileen kasuan.

12.1.4.- Lehen aldiz ebaluazioa egin behar duten pertsonak alegatu ahal izango dituzte beren bizitza akademiko osoko merezimenduak, 2023ko abenduaren 31ra artekoak. Aurretik ebaluaziora aurkeztu direnek aurkeztu ahal izango dituzte ebaluazio horretan lorturiko puntuazioa aitortzeko datatik 2023ko abenduaren 31ra arte lorturiko merezimenduak.

12.1.5.- Eskaerari erantsiko zaio merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa, 1.1 oinarrian aipaturiko protokoloan ezarritako moduan.

**12.2.- Ebaluaziorako behar den dokumentazioa.**

- Eskaera inprimakia, aplikazio informatikoan III. eranskin gisa eskura daitekeen ereduaren arabera.
- Beste unibertsitate edo ikergune batzuetan, edozein lan, estatutu edo administrazio loturarekin eginiko irakaskuntza, ikerketa, ezagutza transferentzia edo kudeaketa zerbitzuak egiaztatzeko agiriak. Soil-soilik aztertu eta, hala badagokio, onartuko da ebaluazioa eskatzen bada unibertsitate eskolako titularren osagarri espezifikoak lortzeko eta UPV/EHUK ez badu aitortu 15 urtetik gorako antzintasuna.

**Hamahirugarrena.-** 2015. urtea baino lehenagoko deialdietan lorturiko tarteak finkatzea.

2015a baino lehenagoko deialdietan tarteak aitortuta izanik, aukerarik izan ez bada urte horretako deialdira edo 2016., 2017., 2018., 2019., 2020., 2021. edo 2022. urtekoetara aurkezteko,



honako honetara aurkeztu ahal izango dira, salbuespen gisa, tarte horiek finkatzeko. Horretarako, behar bezala beteta aurkeztuko da aplikazio informatikoan eskuragarri dagoen IV. eranskina.

**Hamalaugarrena.**– UPV/EHUren ikastegiak adskripzio ikastegi izan dituzten deialdi ofizialetako bekak.

Deialdi honetako tarte eta maila bakoitza ebaluatzeko eskatzen diren urteak zenbatzeko, kontuan hartuko dira deialdi ofizialeko beka bat (UPV/EHU, Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa) unibertsitate honen ikastegi batean baliatu den aldiak. Beka horiek dira, behin graduatuta, prestakuntza eta espezializazio zientifiko eta teknikoko jarduerak egiteko ematen direnak (prestakuntzan dagoen ikertzailea).

**Hamabosgarrena.**– Eskuordetzea.

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen esku uzten dira deialdia egiteko behar diren izapide guztiak, salbu eta Gizarte Kontseiluari aurkeztu behar zaion ordainsari osagarri gehigarrien esleipen proposamena.

Era berean, irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen esku uzten da ere eredu normalizatuak onartzea, bai eskaerenak bai deialdia behar bezala kudeatzeko behar diren gainerako guztiak, kontuan izanda deialdia era automatizatuan izapidetuko dela.

#### **ERANSKINAK**

Deialdi honen hamargarren, hamaikagarren, hamabigarren eta hamahirugarren oinarrietan aipatzen diren I., II., III. eta IV. eranskinak eskuragarri egongo dira eskaeran nahitaez erabili behar den aplikazio informatikoan.